

## Asteburu bikaina pasa dugu eskiatzen

2017/03/20

Ostiral arratsaldean autobusa hartu eta Pirineoetarako bidea hartu genuen MONDRAGON UNIBERTSITATEko 40 ikaslerekin, elurretan irristatzeko desiatzen. Ikasleak fakultate guztietakoak ziren: Enpresagintza, hezkuntza, ingeneritza eta baita erasmus programakoak ere. Hauetariko batzuentzat lehenbiziko aldia izan da elurra ukutu dutena!

Villanuan herrian genuen ostatua eta eskiatzera Candanchu-ko eski estaziora igo gara.

Asteburua primerakoa egokitu zaigu. Eguzkia, temperatura epela, haizerik ez eta primeran ikusten zen. Elurrari dagokionean, goizetan gogorragoa egoten zen eta eguerdirako biguntzen joaten zen. Udaberriko elurra hain zuzen ere. Estazioan ere oso gutxi itxaron behar izan dugu erremonte eta telesillak hartzeko orduan, beraz denbora ongi aprobetxatuta!

Bi egunetan gogoz eskiatu dugu, jende berria ezagutu dugu, leku berriak deskubritu ditugu... eta nekatuta bada ere, pozik etorri gara bueltan, esperientzia eder bat pasa baitugu elurretan.

